

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HEZKUNTZA ETA KULTURA SAILA

Kultur Saila

10. Ildoaren berriazko oinarriak: Kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak

2023ko otsailaren 28an egindako ezohiko eta presazko bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2023an Vitoria-Gasteizen gauzatzeko diren kultur proiektuei eta sendotutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak emateko deialdi publikoa eta horren berriazko oinarriak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik, argitara ematen dira, denek izan dezaten horien berri.

Vitoria-Gasteizen, 2023ko otsailaren 28an

Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkaria
ESTIBALIZ CANTO LLORENTE

2022ko urriaren 14an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko dirulaguntza-deialdiak arautuko dituzten oinarri orokorrak. 2022ko azaroaren 7ko ALHAOn (127. zenbakia.) argitaratu ziren oinarri orokor horiek, eta udalaren webgunean kontsulta daitezke —www.vitoria-gasteiz.org—, baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere. Berriazko deialdi honetara aurkeztu nahi duten pertsona eta entitateek oinarri orokor horietara jo beharko dute jakiteko non eta nola aurkeztu eskabideak, zein betekizun eta betebeharrak izango dituzten eskatzaileek, nola justifikatu behar dituzten dirulaguntzak, zein formulario baliatu behar dituzten eta abar.

1. Oinarria. Dirulaguntzen ildoak

(10. ildoak) Kultur proiektuei eta finkatutako ekitaldi eta jaialdiei laguntzeko dirulaguntzak.

2. Oinarria. Deialdiaren xedea

Oinarri hauen xedea da jarraian adierazten diren jardueretara zuzenduriko dirulaguntzak konkurrentzia-erregimenaren bidez emateko baldintzak arautzea.

— Hiriko kultur eskaintza zabaltzen eta hobetzen lagunduko duten kulturaren arloko sustapen-, sorkuntza-, prestakuntza- eta zabalkunde-ekimenetan laguntzea.

— Dirulaguntza jasoko duten kultur proiektuek irekiak izan beharko dute, Vitoria-Gasteizko udalerrian garatu eta gauzatu beharko dira, eta gasteiztar guztiei zuzenduak izan beharko dute; esperientzia berriak izan ahalko dira, edo lehendik dauden programa, ekitaldi eta jaialdiei jarraipena eman, eta kulturaren arloren baten barrukoak izan beharko dute: prestakuntza, sormena, zabalkundea, ikerketa.

— Aurkezten diren proposamenetan ezingo da sartu Vitoria-Gasteizko Udalak onetsitako udal planei kalte egingo liekeen ekintzarik*, ezta ordenamendu juridikoak babesten dituen oinarriko eskubideetako edozein urratzea lekarkeenik ere, hartara pertsona guztien eskubide eta askatasunak errespetatu daitezken.

*[Berdintasun Plana, udalaren Gazte Plana, Mugikortasun Plana, Irisgarritasun Plana, Herri-tarren Partaidetzaren Plana, udalaren Araudi Grafikoa, Hizkuntza Normalizazioa etab., zeinak Vitoria-Gasteizko udalaren webgunean kontsulta baitaitezke: www.vitoria-gasteiz.org].

Eskakizun hauek bete beharko dituzte bereziki:

1. Berdintasun-plana. Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexista egin beharko dute agiri, publizitate-kanpaina, irudi eta material orotan, emakumeen diskriminazio-irudiak eta estereotipo sexistak oro ekidinez, eta irudietan zenbait balio sustatu beharko dituzte, esaterako berdintasuna, erantzunkidetasuna eta rol eta genero-identitateen aniztasuna. Gainera, sexuaren aldagaia kontuan hartuko da estatistiketan eta datu-bilketan.

2. Euskararen erabilera normalizatzeko plana. Ekitaldia ezagutzera emateko jarduerak oro euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko dira. Bi hizkuntza ofizialak (euskara eta gaztelania) erabili beharko dira dirulaguntza jaso duen programa edo jardueraren publizitatea egiteko erabiltzen diren kartel, testu eta dokumentuetan. Era berean, dirulaguntza jaso duen jardueraren inguruko sustapen-ekitaldi publikoek ere elebidun izan beharko dute, eta euskara eta gaztelania erabili beharko dira, ordena horretan.

3. Udal araudi grafikoa. Erakunde-markaren hedapena: Vitoria-Gasteizko Udalaren erakunde-marka agertu beharko da diruz lagundutako jardueren publizitate- edo propaganda-material orotan, ongi ikusteko moduan. Erakunde-markak behar ez bezala erabiltzea sai-hestu beharko du, zehazki, ezin izango dira markaren eta haren elementuen altu-era/zabalera proportzionaltasuna, formak, posizioa, koloreak, tipografiak eta trazuak aldatu.

3. Oinarria. Onuradunen betekizunak

Honako hauek izan daitezke laguntza-lerro honen onuradun, betiere 2023rako dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako "eskatzailleak" atalean ezarritako irizpide eta baldintzak betetzen badira, eta deialdiaren xedea (aurreko puntua) osorik betetzen bada:

— Profesional autonomoak eta kultura-sektoreko enpresak, bai eta xede nagusia kultura duten elkarteak ere, estatutuetan hala jasota badago.

Federazio, konfederazio edo antzekoetan bildutako kultur elkarte eta entitateek ezin izango dute deialdi honetan proiekturik aurkeztu bakarka eta, aldi berean, entitate bateko kide gisa beste batzuekin batera.

— Dirulaguntza eskatzen duten pertsonak edo entitateek Vitoria-Gasteizko udalerrian izan behar dute helbidea. Alabaina, aintzat hartuta, bai Arabako lurralde historikoaren ezaugarriak, bai Arabako eta Vitoria-Gasteizko kultura plan estrategikoen arteko koordinazioa —zeinak Arabako Foru Aldundiak eta Vitoria-Gasteizko Udalak sustatzen baitituzte, hurrenez hurren—, pertsona eta entitate eskatzaileek Arabako lurralde historikoko beste edozein udalerritan izan ahalko dute helbidea, Vitoria-Gasteizko Udalaren 2023ko dirulaguntza-deialdiak arautzeko oinarri orokorren 4. puntuarekin bat etorritik.

— Betebehar fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Vitoria-Gasteizko Udalarekikoak egunean edukitzea. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko da betebehar hori —dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean—.

4. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen ekintzak: kontzeptuak

Bi kontzeptutarako emango dira dirulaguntzak. Entitate bakoitzak proiektu bat eta bakarra aurkeztu ahalko du.

1. Hirian erreferente diren edo bertan kultura sustatzera bideratuta dauden ekimen, jaialdi eta egitarauak, edozein alorretan delarik ere (arte eszenikoak, musika, ikus-entzunezkoak, letrak, folklorea, arte plastikoak edo beste), betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Zuzkidura ekonomikoa: 175.000,00 euro.

2. Dinamizazio soziokulturalera, kulturartekotasuna sustatzera, bizitza kulturala bultzatzera, kultura integrazio eta gizarte-kohesiorako balio gisa garatzera, kulturaren alorrean garapen pertsonala garatzera (jakituria eta sormena sustatuz) eta abarretara zuzenduriko jarduera eta programak, betiere kultur agente lokalek antolatu eta kudeatuak. Zuzkidura ekonomikoa: 25.000,00 euro.

Balorazio batzorde teknikoak izango du aurkeztutako proiektu bakoitza zein kontzeptutan sartuko den zehazteko ahalmena.

Aurkeztutako proiektuak balioetsi ondoren, baldin eta kontzeptuetakoren bat hutsik geratzen bada edo kreditua sobera geratzen, Balorazio Batzorde Teknikoak kreditua kontzeptu batzuetatik beste batzuetara aldatzeko proposatu ahalko dio zinegotzi ordezkariari, betiere deialdi honetarako onetsitako aurrekontu-kreditua gainditu gabe.

5. Oinarria. Baliabide ekonomikok

Deialdi honen barruan ematen diren laguntzak Hezkuntza eta Kultura Saileko Kultura Zerbitzuaren 2023ko ekitaldiko aurrekontuko 23.12.03.3341.489.33 partidako aurrekontu-kredituaren kontura joango dira; gehienez 200.000,00 eurokoa da horren zuzkidura.

6. Oinarria. Indarrean jartzea eta eskabideak aurkezteko epea

ALHAOn argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean oinarri hauek, aldeztetik Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean laburpen-iragarkia argitaratuta.

Eskabideak aurkezteko epea 15 egun baliodunekoa da, oinarrien deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

7. Oinarria. Eskabideak aurkeztea

Eskabide-orriaren arabera aurkeztu beharko da eskabidea, agiri hauekin batera:

- Pertsona fisiko baten ordezkaria izanez gero, eskabidea izenpetzen duenaren ordezkari-tza-ahalmenaren egiaztagiria.
- Pertsona juridikoa izanez gero, elkarre edo entitate eskatzailearen legezko ordezkariak entitatearen izenean diharduela egiaztatzen duen dokumentua.
- Entitatearen eskrituren edo estatutuen kopia eta, behar izatera, Eusko Jaurlaritzaren Elkar-teen Erregistro Nagusian eta dagokion erregistro publikoan izena emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.

Proiektu bat erantsi beharko zaio eskabideari. Gidoi hau proposatzen da hori egiteko:

- Proiektuaren oinarriak.
- Helburuen formulazioa.
- Proiektuaren azalpena.
- Metodologia.
- Jardueren zerrenda.

- Jardueren egutegia.
- Jardueren kokalekua.
- Nori zuzenduta dagoen.
- Aurreikusitako parte-hartzaile kopurua (kopurua eta kolektibo zehatza) eta publiko mota.
- Baliabide materialak eta giza baliabideak.
- Beste kolektibo batzuen inplikazioa.
- Ebaluazio-irizpideak.
- Jarduera ezagutarazteko baliabideak edota sistema.

Aurrekontu xehea:

- Gastuen zerrenda.
- Diru-sarreraren zerrenda, hauek barne hartuz: eskatutako, aurreikusitako nahiz jasotako bestelako dirulaguntza edo laguntza ekonomikoak, izen-ematearen bitartez jasoko direnak, eta abar.

Nahitaezkoa izango da proiektua eta aurrekontua eskabidearekin batera aurkeztea, oinarri hauetan ezarritako eran eta epeetan.

Gainerako dokumentazioari dagokionez, hamar egun balioduneko epea emango zaie interduneei nahitaezko dokumentuak aurkezteko, eta adieraziko zaie ezen, hala egiten ez badute, eskaeran atzera egin dutela ulertuko dela. Jakinarazpenak, nagusiki, posta elektronikoz egingo dira —jaso izanaren egiaztagiriarekin—, eskabidean ageri den helbidean.

Dirulaguntza-deialdi honetarako ez da onartzen eskabidea birformulatzea, zeina dirulaguntzen oinarri orokorren 10. atalean jasotzen baita (2022ko azaroaren 7ko ALHAO, 127. zenbakia.).

8. Oinarria. Balioespen-irizpideak

Dirulaguntzak emateko balioespen-irizpideak entitateak eskabidean eta erantsitako agirietan emandako datuak aintzat harturik balioetsiko dira.

Gehieneko puntuazioa: 100 puntu.

- Originaltasuna, berrikuntza, proiektua sendotzea: 15 puntu.
- Proiektuaren metodologia eta garapena: 15 puntu.

Proiektua gauzatzean eta jarduerak ebaluatzean baliatuko diren oinarriak, helburuak eta metodologia.

- Proiektuaren kalitatea eta interesa, kulturaren ikuspegitik: 50 puntu.
- Proiektuaren garrantzi kulturala: 15 puntu.
- Eragin kulturala hirian: 10 puntu.
- Proiektuaren onuradunak: zuzendua dagoen kolektiboa, parte-hartzaileen kopurua. 10 puntu.
- Barne- eta kanpo-komunikazioa: 5 puntu.
- Proiektuan inplikaturako beste kolektibo batzuk: 10 puntu.
- Bideragarritasun ekonomikoa: 5 puntu.

Efikazia, baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak esleitzean.

- Euskararen erabilera, programaren garapenean: 5 puntu.

Adibideak: ekintzak, jarduerak, euskarak entitatearen irudian duen lekua (webgunea, sare sozialak, irudi korporatiboa...), entitateak euskararen normalizaziorako bultzatzen dituen neurriak (adibidez: euskara jakitea baloratzea langileak, begiraleak eta bestelako laguntzaileak kontratatzean...).

– Genero-berdintasuna sustatzen duten ekintzen garapena: 5 puntu.

Adibideak: gizon eta emakumeen presentzia orekatua proiektua burutzean, prestakuntza berdintasunaren alorrean, kontratazio-irizpideak, indarkeria sexistari erantzuteko kanpainak abiaraztea edo halakoren bati babesia ematea, eta abar.

– Tolerantzia eta kultura-aniztasuna sustatzen dituzten ekintzen garapena: 5 puntu.

9. Oinarria. Dirulaguntza jaso ahal izateko programa bakoitzak gutxienez lortu behar duen puntu-kopurua

Irizpide horiek aplikatzen direlarik, gehienez eskura daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 50 lortzen dituzten proiektuak aukeratuko dira.

10. Oinarria. Laguntza emateko prozedura

– Norgehiagoka-erregimena baliatuko da deialdi honetako dirulaguntzak emateko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legean xedatutakoaren ildotik. Horrenbestez, dirulaguntzak emateko alderatu egingo dira aurkeztutako eskabideak, lehentasun-hurrenkera ezartze aldera —zortzigarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera— eta puntuaziorik handiena lortzen duten eskabideei emango zaizkie dirulaguntzak, beti ere deialdiaren berariazko oinarrietan finkatuko aurrekontu zuzkiduraren kopurua inola ere gainditzen ez badu.

Deialdi honetako izapideak arintze aldera, helbide elektronikoko operatibo bat gaituta eduki beharko dute eskatzaileek tramitazioak iraun bitartean, hartara aurkezten duten dokumentazioan aurkitzen diren akatsak zuzendu ahal izateko, edo eskatzen diren laguntzak modu legalean arin eta eraginkortasunez ebatzi ahal izateko beharrezko den beste edozein errekerimendu helarazi ahal izateko.

– Behin gutxienerako puntu-kopurua lortuta (50 puntu), programa bakoitzari emango zaion dirulaguntzaren zenbatekoa eskuratu duen puntu-kopuruaren arabera izango da, taula honen arabera:

1. kontzeptua:

PROGRAMARI EMANDAKO PUNTU KOPURUA	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
> 75 puntu	12.000,00 eta 15.000,00 euro artekoa
60 – 75 puntu	4.000,00 eta 10.000,00 euro artekoa
50 – 60 puntu	500,00 eta 4.000,00 euro artekoa

2. kontzeptua: gehienezko zenbatekoa, proiektuko. 4.000,00 euro.

11. Oinarria. Ez da dirulaguntzarik emango honelakoetarako

- Vitoria-Gasteizko udalerritik kanpo gauzatzen diren proiektuak.
- Helburu nagusitzat ez kultura sustatu eta zabaltzea, baizik eta beste batzuk (sozialak, kirolaren arlokoak, erlijiosoak, politikoak, osasunaren arloak...) dituzten proiektuak.
- Eskabidea egiten duen entitateko bazkideentzat bakarrik diren proiektuak.
- Dirulaguntza ematen den ekitaldi ekonomikoan ez baizik eta beste batean gauzatuko diren jarduera edo programa kulturalak prestatu edo alde zuzeneko lanak egitea xede duten ekintzak.
- Proiektuaren garapenetik zuzenean eratortzen ez diren gastuak.

12. Oinarria. Programa edo jarduera bakoitzari gehienez emango zaion dirulaguntza

1. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 70ekoa izango da dirulaguntza proiektu bakoitzeko, gehienez ere. Dirulaguntzaren zenbatekoak inolaz ere ezingo du gaintitu 15.000,00 euroko kopurua 1. kontzeptura aurkeztutako proiektu bakoitzeko, edo 4.000,00 euroko kopurua 2. kontzeptura aurkeztutako bakoitzeko.

Hautatutako proiektuetako bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa erabakitzeke, lortu dituzten puntuazioen arabera banatuko da deialdiko kreditua, oinarrien 10. puntuari jarraituz. Ez da inolaz ere gaintituko Kultura Zerbitzuari eskatutako diru-kopurua, eta beti ere aurreko atalean finkatutako muga errespetatuko da.

2. Dirulaguntza jaso dezakeen aurrekontua —aurreko atalean adierazitakoa— onesteko irizpide hauek hartuko dira kontuan:

a) Jarduera edo proiektua garatzeko inolako zalantzarik gabe behar direnak joko dira dirulaguntza jaso dezaketean gastutat. Dirulaguntza jaso dezaketean gastuek nahitaez 2023ko ekitaldian eginak izan beharko dute, eta eskuratze-kostuak inolaz ere ezingo dira izan merkatuko balioetik gorakoak.

b) Ezingo da diruz lagundu daitekeen gastutat jo BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.

3. Baldin eta elkarte eskatzaileak aurkezten duen aurrekontuan aurreko atalaren ildotik diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, ez dira zenbatuko 1. atalean kontuan hartuko diren gastuak —diruz lagundu daitekeen aurrekontua— zehazterakoan.

4. Nolanahi ere, onuradunak hasieran aurkeztutako aurrekontuaren zenbatekoa eta azkenean gauzatu eta justifikatutakoa bat datozela egiaztatuko du Kultura Zerbitzuak, justifikazioa egiaztatzeke fasean. Azkenean gauzatutako zenbatekoa txikiagoa bada, murriztu egingo da hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Hori guztia, ezertan eragotzi gabe bidegabe justifikatutako zenbatekoak (osorik edo zati batean) eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzuli behar izatea, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 b) eta c) artikuluan ezarritako kasuetan.

13. Oinarria. Eskabideak balioetsi eta izapidetzea, eta dirulaguntzak emateko prozedura ebaztea

Balorazio batzorde teknikoak eratu da hautaketaz eta jarraipenaz arduratu dadin, dagokion udal zerbitzuko teknikariek osatua. Batzorde horrek 8. puntuari adierazitako irizpideen arabera ebaluatuko ditu eskabideak, eta txosten arrazoitu bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuta. Organo instrukzio-egileak ebazpen-proposamena egingo dio ebazteko eskumena duen organoari.

Honako hauek osatuko dute batzordea: Kultura Zerbitzuko burua, Kultura Zerbitzuko ataleko bi arduradun, kultur teknikari bat, eta Hezkuntza eta Kultura Saileko Administrazio burua, azken hori idazkari lanetan.

Kultura Zerbitzuak, halaber, eskumena du deialdi honetako dirulaguntzak emateko prozedura bideratzeko, eta ofizioz egingo ditu ebazpen-proposamena taxutzeko baliatuko diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeke beharrezkotzat jotzen dituen jarduerak oro.

Eskabide guztiak oinarri hauetan jasotako irizpideei jarraituz baloratu ondoren, balorazio batzorde teknikoak txosten teknikoak egingo du, eta deialdiaren ebazpen-proposamena aurkeztuko zaio Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariari, ebazpena eman dezan.

ALHAOn eta Vitoria-Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan argitaratuko dira dirulaguntzak eman nahiz ukatzeko ebazpenak, baita horiek izan litzaketean aldakuntzak eta prozedurako gainerako egintzak ere. ALHAOko argitalpen horrek Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.4 artikuluan xedatutakoaren arabera egindako jakinarazpenaren ondorio guztiak izango ditu, Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legean xedatutakoa aintzat hartuta.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkezteko erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik. Hala eginez gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu harik eta hura espresuki edo ustez ebatzi arte. Horren ondoren berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko da, bi hilabeteko epean, egintza argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, dagokion araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dena den, interesdunek egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkezteko, nahi badute, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40.2 artikuluan aurreikusitakoaren ildotik.

14. Oinarria. Dirulaguntza ordaintzea eta beste dirulaguntza batzuekiko bateragarritasuna

Diru-kopuru hori bi zatitan ordainduko da: emandako kopuruaren ehuneko 80 zinegotzi ordezkariak dirulaguntzak emateko ebazpena onesten duenean, eta gainerako ehuneko 20a, emandako dirulaguntza behar bezala justifikatutakoan.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateragarri izango dira helburu berarekin Estatuko edo Europar Batasuneko edozein administrazio edo entitate publiko nahiz pribatuk edo nazioarteko edozein erakundek emandako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrerak eta baliabideekin. Hala ere, helburu berei erantzuteko beste dirulaguntzarik jasoz gero, emandako dirulaguntza egokitzerik izango da, beharrezko denaz gaindiko finantzaketarik izan ez dadin.

Dirulaguntza hauek arautzen dituzten oinarri orokorretan xedatutakoa gorabehera, deialdi honen barruan ematen diren dirulaguntzak ez dira bateragarri izango udalaren beraren beste sail edo zerbitzu batzuek edo berari atxikitako beste erakunde batzuek xede, programa edo jarduerak bererako ematen dituzten bestelako dirulaguntzekin, beharrezko denaz gaindiko finantzaketarik izan ez dadin, salbu eta sailek, bat etorri, berariaz hala bai-mentzen badute.

15. Oinarria. Dirulaguntza justifikatzeko modua

1) Dirulaguntzak berariazko oinarri hauen goiburuan aipatutako oinarri orokorren 13.4 atalean (7. orrialdea) xedatutakoari jarraituz justifikatuko dira. Bertan aipatzen diren eranskinak Udalaren webgunean daude eskuragarri, betetzeko moduko formatuan. "Euskararen erabilerraren jarraipena egiteko fitxa" beteta aurkeztu beharko da.

Lau hilabeteko epean justifikatu beharko dira jasotako dirulaguntzak, programa edo jarduerak amaitzen denetik kontatuta, edo ematen denetik aurrera kontatuta, gauzatu ondoren emandakoa bada.

5.000 eurotik beherako dirulaguntzak jaso dituzten entitateek dirulaguntzen justifikazio sinplifikatua aurkeztu beharko dute.

2) Deialdi honetan ez dira diruz lagunduko zeharkako kostuak.

Kilometraje-gastu gisa ez da onartuko kilometroko 29 zentimotik gorakorik.

Ez dira diruz lagunduko:

- a) Entitatearen lokalerako ondasunak erostera edo konpontzera bideratutakoak.
- b) Entitatearen mantentze- eta funtzionamendu-gastuak.

3) Dirulaguntzen justifikazio sinplifikatua, zenbatekoa 5.000,00 eurotik beherakoa denean.

Vitoria-Gasteizko Udalak emandako dirulaguntza 5.000,00 eurotik beherakoa bada, justifikazioa fase hauetan egingo da:

1. fasea. Justifikazio orokorra: dirulaguntzak justifikatzeko ezarritako epearen barruan, agiri hauek baino ez dira aurkeztu beharko:

a) Egindako jardueri eta lortutako emaitzei buruzko txostena.

b) Diruz lagundutako proiektuari buruzko gastu guztien zerrendari dagokion justifikazioko kontu sinplifikatuaren 1JS eranskina, zerrendatutako jarduera guztien gastuen guztizko zenbatekoarekin. Fase horretan ez da fakturarik ez bestelako justifikazio-dokumenturik aurkeztuko, ez eta horiek ordaindu izana egiaztatzen duen dokumenturik ere.

c) Publizitate-euskarrien zerrenda eta erakusgaiak (liburuxkak, iragarkiak, etab.), non Vitoria-Gasteizko Udalaren logotipoa agertuko den, erakunde laguntzaile gisa.

2. fasea. Eskatutako entitate onuradunei dokumentazioa ematea.

5.000,00 eurotik beherako dirulaguntza jaso duten entitateek justifikazio orokorra aurkeztu ondoren, datuak egiaztatzeko hautatutako entitateei hamar egun balioduneko epean diruz lagundu daitezkeen gastuei dagozkien fakturak eta gainerako egiaztagiria aurkezteko eskatuko zaie, emandako dirulaguntzaren zenbatekoraino.

Entitate horiek hautatzeko, 5.000,00 eurotik behera jaso duten entitate onuradunen zerrenda egingo da, dirulaguntza ematea ebazteko unean berean, Vitoria-Gasteizko Udalaren Erregistroko sarrera-dataren arabera (dokumentu hori ez da publikoa izango dirulaguntza guztien justifikazioa aurkezten den arte).

Entitateen lagina lortzeko, 5.000 eurotik behera jaso duten entitate onuradunei dagokienez izapidetzen diren dosierren ehuneko 30eko portzentajea aplikatuko da gutxienez; horien zenbatekoak dirulaguntza-deialdi honetarako bideratutako aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 izan beharko du gutxienez.

Entitateak laginketa-prozedura sistematiko baten bidez hautatuko dira. Metodo horren bidez, dossier-kopurua (5.000 eurotik behera jaso duten entitate onuradunak) laginketa-kopuruaz (izapidetutako dosierren ehuneko 30) zatituko da, laginketa-tarte bat lortzeko. Ondoren, ausaz aukeratu da laginaren lehen elementua, eta, ondoren, laginketa-tartetik eta laginaren lehen elementutik abiatuta, lagina osatuko duten gainerako entitateak hautatuko dira.

Adibide gisa: entitateen kopurua 27koa bada, eta egiaztatutako entitateen gutxienezko portzentajea ehuneko 30ekoa (hots, 9 entitate), aurreko bi zenbakien arteko zatidura izango den laginketa-tartea lortuko dugu; kasu honetan, 3. Ondoren, ausaz 1 eta 3 bitarteko zenbaki bat hautatuko da. Ausaz aukeratutako zenbakia 2a bada, adibidez, 2, 5, 8, 11, 14, 17, 20, 23 eta 26 zenbakiak dituzten dossierrek osatuko dute egiaztatu beharreko entitateen lagina. Dossier horien zenbatekoa aurrekontu-kredituaren zenbatekoaren ehuneko 30 baino txikiagoa bada, ausaz beste zenbaki bat hautatuko da, eta modu berean jotatuko da.

16. Oinarria. Osasun-neurriak pandemia edo ezinbesteko kasuetan

Entitate onuradunak hitzematzen dute ezen hitzarmen hau gauzatzeko antolatzen dituen ekintza edo ekitaldi guztietan osasun-agintariek unean-unean agindutako neurriak bete eta bete araziko dituztela. Entitate onuradunarena izango da –eta ez beste inorena– indarrean dagoen osasun-araudia betetzearen erantzukizuna.

Aldatzea erabaki behar izanez gero, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariak egingo du, entitateak hala eskatzen duelarik. Nolanahi ere, jarduerak gauzatzeko epea bukatu aurretik egin beharko da eskabidea.

17. Oinarria. Azpikontratatea

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 16. artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 29.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz 2023ko dirulaguntzak arautzen dituzten oinarri orokorretako 15. oinarrian (“azpikontratazioa”) xedatutakoaren arabera egingo da, berezitasun honekin:

Jardueraren ehuneko 50era arte azpikontratatea baimentzen da dirulaguntzen 10. ildo honetan.

Dirulaguntzei buruzko udal ordenantzaren 5.1 eta 16. artikuluetan xedatutakoaren ildotik, Hezkuntza eta Kultura Saileko zinegotzi ordezkariaren esku uzten da diruz lagundutako jardueren azpikontratazioa eta hura elkartearekin lotura duten pertsona edo entitateekin gauzatzea baimentzeko eskumena.

18. Oinarria. Datu pertsonalen tratamendua

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera egingo da datu pertsonalen tratamendua, orobat aintzat hartuz Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apiri-laren 27ko 2016/679 Araudia, datuen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa.



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

www.vitoria-gasteiz.org

Justifikazio-kontu sinplifikatua
Cuenta justificada simplificada

informacion@vitoria-gasteiz.org

1-JS. ERANSKINA – ANEXO 1-JS

AITORTZAILEAREN DATUAK – DATOS DE LA PERSONA DECLARANTE

Izen-deiturak – Nombre y Apellidos

1. abizena Apellido 1		2. abizena Apellido 2		NAN/AIZ DNI/NIE	
Izena Nombre					

Harremanetarako – Datos de contacto

1. Telefonoa Teléfono 1		2. Telefonoa Teléfono 2		Posta elektronikoa Correo Electrónico	
----------------------------	--	----------------------------	--	------------------------------------------	--

Helbidea – Dirección

Kalea Calle				Zenbakia Número		Letra Letra		Eskailera Escalera	
Solairua Piso	Atea Mano		Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población				
Udalerría Municipio				Lurraldea Provincia					

AITORTZAILEAK ORDEZKATZEN DUEN ENTITATEAREN DATUAK DATOS DE LA ENTIDAD EN REPRESENTACIÓN DE QUIEN ACTÚA EL DECLARANTE

Kargua entitatean – En calidad de	Elkartea/Federazioa – Asociación/Federación	IFZ -NIF

Helbidea – Dirección

Kalea Calle				Zenbakia Número		Letra Letra		Eskailera Escalera	
Solairua Piso	Atea Mano		Posta-kodea Cód. Postal		Herria Población				
Udalerría Municipio				Lurraldea Provincia					

Harremanetarako – Datos de contacto

1. Telefonoa Teléfono 1		2. Telefonoa Teléfono 2		Posta elektronikoa Correo Electrónico	
----------------------------	--	----------------------------	--	------------------------------------------	--

Webgunea – Página web

DIRULAGUNTZAREN PROIEKTUA/ILDOA – PROYECTO/LÍNEA DE SUBVENCIÓN

ADIERAZTEN DU – DECLARA

